

LATINA BBB-2.

Ana Lazkoz Bozalongo,
Elhuyar & Elkar, Donostia, 1993

Irakaskuntza Ertainetako latin-irakasleek aspalditik igurikitzen zuten liburua aurkitu uste izan dute 1993ko Durangoko liburu-azokan: ikasleen lehen latin-ikasturtean erabiltzeko moduko ikasliburua. Latina euskaraz irakasten dutenak asko izanik ere, hutsaren hurrengoak dira erabiltzeko dituzten langaiak, eta soilik aurkibidea ikusita pozez erosi dukete ziurrenik. Etxean laster konturatu dirateke ordea, ez zaiela euren lanean batere lagungarri gertatuko Lazkoz andereak Elhuyar elkartearen itzalean argitara eman duen lan hau.

Bi zatitan banatzen da liburua, lehenengoan hizkuntz formak eta bigarrenean, *addenda* izenburupean, "latinezko esaldi batzuk" daude lehenbizi, bakoitza bere euskal ordainarekin bilduta, gero zibilizazio-gaiak aurkezten direlarik. Hizkuntz formak aztertzeko, sarrera teoriko labur bat, paradigmak, ariketak eta ikasgaiari dagokion hiztegia eskaintzen dira. Zibilizazio-gaien atalean ondokoen azalpen teorikoa aurki daiteke, hurrenez hurren: "Klase sozialak Erroman", "Erromatar familia. Etxea", "Erlijio-sinesmenak Erroman", "Karrera politikoa Erroman", "Zuzenbide erromatarra", "Erromako hezkuntza" eta "Erromako ikuskariak".

Iturriak

Gauzarik orokorrenetatik hasteko, aipa dezagun aitortu gabeko iturrien arazoa. Azken atalean da nabarmenena inon aipatzen ez duen iturri batekin duen zorra. *Santillana* argitaletxeak BBBko bigarren kurtsorako 1976an prestatuturiko *Lengua latina y civilización romana* [hemendik aurrera *Santillana*] liburuarekin alderatzea baino ez da behar, Ana Lazkozek zer egin duen ikusteko, hots, gaztelaniazko testua hartu eta zatirik garrantzitsuenak edo interesgarrien iruditu zaizkionak euskaratu, hitzez hitz. Beste era batera esanda, euskarazko liburuan eskaintzen den dena dago gaztelaniazkoan, azken honetan gai guztiak nahikoa zabalago azaltzen badira ere. Hona hemen euskarazko lehen lerroak (99. or.):

Munduko gizarte guztiak bezala, erromatar gizartea ezberdintasunean oinarrituta zegoen; jaiotzagatiko zein aberastasunengatiko desberdintasunean.

Ezberdintasunen artean, lehena eta mingarriena, pertsonak libre eta esklabu bihurtzen zituena zen: lehenak pertsonatzat hartzen ziren eta bigarrenak gauzatat (inolako eskubiderik ez zuten).

Baina nahiz eta goian aipaturikoa bezain erabatekoa izan ez, pertsona librean artean ere, ezberdintasun itzelak zeuden. Jarraian, pertsona librean klase guztiak aipatuko ditugu (banan-banan) eta gero esklabuak.

Eta hara *Santillana* argitaletxearen testua (218. or.):

Como todas las sociedades del mundo, la sociedad romana estaba basada en la *desigualdad*, que podía originarse por el nacimiento, las riquezas u otros motivos.

La primera y más hiriente desigualdad era la que dividía a los hombres en *libres* y *esclavos*. Los primeros eran considerados personas, con los derechos, al menos mínimos, de una persona. A los segundos se les consideraba como cosas, y carecían de todo derecho.

Pero también entre los hombres libres existían desigualdades enormes, aunque no tan radicales. Nos referiremos, una por una, a las distintas clases de hombres libres y luego a los esclavos.

Ez litzateke arbuigarria izango jatorrizko testua aipatuko balu (zorria hainbestekoa izanik egile-eskubideak ordaindu ondoren, ziurrenik), baina ez da egoki testu jakin baten itzulpena eman eta jatorrizkoaren egilearen izena inon ez agerraraztea.

Latinezko esaldien atalean zorria ez da hain nabarmena, baina ezta horregatik txikia ere. Hemen ere ez da iturririk aipatzen, baina liburu berri honetako zenbait gauzak gehiegi gogorarazten dute hain zabaldua den Xabier Kintanaren *Hiztegia bi mila*

ezaguna [hemendik aurrera *Kintana*], “Latinezko eta beste erdal esaldi batzu” atala hain zuzen. Kintanak bilduriko esaldi asko Ana Lazkozek hartu ez baditu ere, eta hiztegi ezaguneko esaldien euskal ordainak batzuetan aldatu egin dituen arren, liburu berri honetan agertzen diren ehun eta lau esalditik gutxienez berrogeita hamaseiren zuzeneko iturria Kintanaren hiztegia dela baieztatuko nuke asko erratzeko beldur handirik gabe. Begira, lagin bezala, Lazkoz anderearen liburuan [hemendik aurrera *Lazkoz*] *d* letrarekin hasten direnen euskal ordainen gain-gainetiko alderaketa:

de facto:

Kintana: “egitez, errealitatean”.

Lazkoz: “egitez, errealitatean”.

de iure:

Kintana: “eskubidez, legez”.

Lazkoz: “legez”.

de incognito:

Kintana: ez du biltzen.

Lazkoz: ez du euskal ordainik ematen.

deficit:

Kintana: ez du biltzen.

Lazkoz: “falta (aditza), falta dena”.

delenda est Carthago:

Kintana: “Karthago suntsitu beharra dago”.

Lazkoz: “Kartago hondatu beharra dago”.

delirium tremens:

Kintana: “zorabio nagusia”.

Lazkoz: “zorabio nagusia”.

Deo gratias:

Kintana: "Jainkoari eskerrak,
Jaunari esker".

Lazkoz: "Jainkoari eskerrak".

divide et vices:

Kintana: "zatika ezak eta garaituko
duk".

Lazkoz: "zatika ezak eta garaituko
duk".

do ut des:

Kintana: "ematen dut, hik eman
dezaan".

Lazkoz: "zuk eman dezazun
ematen dut".

dura lex sed lex:

Kintana: "lege gogorra, baina lege,
hala ere".

Lazkoz: "lege gogorra, baina lege,
hala ere".

Aldaketak gora behera, gehiegi-koak iruditzen zaizkigu antzekotasunak lehena ez dela bigarrenaren iturria ez pentsatzeko. Kintanak beste hogeita lau esaldi ditu latinez *d* letrarekin hasten direnak eta gainera bakoitzaren jatorria eta erabilerrari buruzko azalpena ematen du beti. Lazkozek, horren ordez, erabilera-adibide bat eskaintzen du gehienetan. Dena dela, iturri nagusia zein izan duen erakusteko adibiderik politena *carpe diem* esaldia da. Euskal ordainei begiratuz gero, bakoitzak bere aldetik asmatuikoak direla ere pentsa liteke, baina Lazkozek parentesi artean ematen duen azalpenak (hots, "Horatio I,II,8" -*sic*-) salatzen du iturria. Batetik, pertsona-izena emateko modu hori (*h* eta *t* gorde, baina *-us* bukaera *-o* batez ematea) inon gutxi aurkitzen da garai hartako Kintanaren lanetan ez bada, are ez da hori Lazkozen liburuan gainerako izenak emateko

erabiltzen den sistema. Bestetik Kintanaren hiztegiaren esaldiaren jatorriaren azalpena eskaintzean, Horazioren *Odak* lana aipatu eta lehen liburuko bigarren odako zortzigarren bertsolerrotik harturiko hitzak direla zehazten den arren, hitz horiek aipatu liburuko hamaikagarren odatik hartuak dira, Kintanak nonbait // (hots, 'hamaika' arabiar zenbakiz) eta // (hots, 'bi' erromatar zenbakiz) nahasi baititu; eta noski, Kintanarekin batera erori da Lazkoz hutsean. Berrito diogu, zilegi da liburu berri bat egitean iturri ezberdinak erabiltzea, baina bakoitzaren lana aitortuz.

Zailagoa da iturri ezberdinen aztarnak liburuaren zati nagusian, hizkuntz formei dagokienean hain zuzen, jarraitzea, ikusten denez handiagoa baita egilearen ekarpena, batez ere paradigmaren aurkezpen-eran eta hiztegiaren eraketan, eta ugariagoak baitira iturriak ariketen atalean. Ez dut iturri guztien jarraipen-lana egingo, baina argigarri izan daiteke lehenengo bi ikasgaietan ikusten den zerbait aipatzea, gainerakoan gerta litekeena susmatzeko.

Har ditzagun liburu hasierako 1.1 *Alfabetoa* eta 1.2 *Ahoskera* atalak (7. or.). Bila ditzagun atal hauek 1985ean Lauro Ikastolaren itzalean Angel Zelaietak argitara emaniko *Euskarazko Hatsapenak Latin Ikasteko* testu-liburuan (11-12. or.). Azaletik begiratuta ez dugu halabeharrez bata bestearen zordun denik pentsatu behar, bien arteko bateratasun susmagarriak izan arren ez baita erraza halako gauzak azaltzean berritasunik agertzea. Baina gehiago esango nuke, oraingoan -aurrekoetan ez bezala- agian ausartegi izanez eta susmoetan

urrutiei baldin bagoaz aurrez barkamena eskatuz: bi testuen arteko ezberdintasunek ez dute iturri nagusia itxuragabetzea bilatuko, ezta? Hara bi liburuetako perpaus batzuk:

Zelaieta: “Latin klasikoaren garaian, jarraiko ikur hauek erabiltzen ziren”.

Lazkoz: “Latin klasikoaren garaian ikur hauek erabiltzen ziren”.

Zelaieta: “Geroago, y eta z ezarri ziren, griegotikako hitzak idazteko”.

Lazkoz: “Geroago Y eta Z ezarri ziren, hitz grekoak idazteko”.

Zelaieta: “Bestalde *u* beti esaten zen, nahiz eta *qui*, kasurako, idatzi”.

Lazkoz: “Bestalde, “*u*” beti esaten da, nahiz eta, adibidez, “*qui*”, idatzi”.

Zelaietaren azalpen okerrak ere bere hartan bildu ditu Lazkozek, erdikontsonanteen ebakerari buruzkoa kasuko:

Zelaieta: “Beste bokale baten aurrean dagoen *i* delakoa, kontsonanteen moduan esaten zuten”.

Lazkoz: “Normalean, beste bokal baten aurrean daudenean kontsonanten [*sic*] hotsa dute (“*U*” → “*V*” // “*I*” → “*J*”)”.

Liburugileek esandakoari kasu eginez gero kontsonante bezala irakurri behar du ikasleak *uia*, *alienus*, *redii*, *facio*, *pious* hitzetako <*i*> (eta Lazkozek idatzitakoa onartuz gero kontsonante bezala ahoskatuko genuke “normalean” *tua*, *suesco*, *tui*, *eluo*, *tuus* hitzetako <*u*>). Ez da baten hutsa bestearenaren jatorri izango, ezta? Edo biek izan dute azalpenak gaizki ematen zituen iturri bat? Edo menturaz biek egin dute bakoitzak bere aldetik huts bera? Bestalde, atal hau idaztean Lazkozek aurrean izan badu Zelaietaren liburua, ikasleak

eskertu egingo zukeen gauza onak ere hartzea, adibidez han azalduta dauden azentuazio-arauak ere biltzea, ondo irakurtzen ikasteko, besteak beste 8. orrialdean ariketa gisa eskaintzen den *Irakurmena* [*sic*!] ondo irakurtzen jakiteko.

Aipatu gabeko iturrien kontua amaitzeko, soilik liburu honena barik latina edozein hizkuntzatan ikasteko erabili ohi diren testu-liburuaren pekatu bat salatu behar dut. Ariketetako perpausak eta testuak batak besteari hartu ohi dizkiete liburugileek inongo aipamenik gabe. Ezin da perpaus bakoitzaren ondoren iturria zehaztu, baina hitzaurrean edo liburuaren hasieran badago lekua bakoitzari berea aitortu eta mundu guztiari eskerrak emateko. Zorrak norainokoak izan daitezkeen ohartzeko: Lazkozen bigarren ikasgaiko ariketetan zortzi perpaus daude itzultzeko eta horietatik bost gorago aipatu dudan *Santillana* argitaletxearen liburuan agertzen dira.

Terminologia

Gramatika-terminologia da ziurrenik Zelaietaren liburuaren aldean berri honek aurkezten duen hobekuntzarik nabarmenena, nahikoa onargarriak iruditzen baitzaizkigu hautaketarik gehienak. Orohar bat datoz azken urteetan hizkuntzalariek eta hizkuntz gaiez arduratu direnek gehien erabili dituzten terminoekin, eta latin-irakasleez gain gutxik erabiliko duen gramatika-terminologian bide beretsutik jo du Lazkoz andereak, euskal ordain berriak asmatzean ere euskara teknikoak azken urteetan jorratu dituen bideetatik aldendu gabe.

Badira haatik eztabaidagai izan daitezkeen aukerak. Eztabaidagarri

izan daiteke adibidez Lazkozek *subjektua* erabiltzen duen lekuan ez ote litzatekeen hori bezain egoki, adibidez *subjektua* (cf. EGLU I, *passim*), *subjetoa* (cf. EGLU III, *passim*), *subjektoa*, *sujetua*... edo beste edozein konbinazio. Antzera, Lazkozek hautatu duen *adjektiboa* edo *adjetiboa* formekin. Garai baten ziurrenik UZEI-ren *Hizkuntzalaritza* hiztegiaren eraginez Lazkozen aukerak nolabait hedatu baziren ere, ez dut uste (ustea baino ez da) gaur horiek direnik adituek gehien erabiltzen dituztenak, ezta bultzatu behar direnak ere.

Pasiboa eta aktiboa, *erak* dira Lazkozen liburuan; *era* hitza euskaraz indikatiboa, subjuntiboa, agintea... aipatzeko erabili denez eta hortaz ambiguo gerta daitekeenez, pasibotasuna edo aktibotasunaz aritzean *boza* edo *jokaera* erabiltzea hobetsi beharko litzatekeela dirudi.

Jokaera hitza nahasgarriegia iruditzen zait Zelaietak *aditz joko*a esaten duenetan erabiltzeko; gardenagoa izango litzateke Zelaietak bezala *amo* aditza lehen aditz-jokokoa eta *habeo* bigarrenekoa dela esatea.

Ez dut uste konparaketetan lehen eta bigarren *terminoa* daudela esatea (cf. 48. or.), euskaraz gauza asko esatea denik; nire ustez argiagoa da gaztelaniazko terminotik urrundu eta *konparaburua* erabiltzea; bestela *atalak*.

Latinez *se* hitza *forma bihurkaria* dela esango nuke, euskaraz *neure*, *geure*... *bihurkari* direla, eta ez *forma bihurkorrak* (cf. 61. or.) esan ohi den bezala.

Zenbatzeko *zenbakiak* erabili ohi dira, baina singularra eta pluralaz

jardunez gero *numeroa* aipatzen da azken urteetako argitalpenetan, ez *zenbakia* (cf. 70. or.), Lazkozek bezala.

Perpau pasiboetan *sujetu pairalea* eta *egilea* daudela esan daitekeela iruditzen zait, ez *subjektu paziente*a eta *agentea* (cf. 76. or.). Ez dira orain asmaturiko hitzak eta nahikoa gardenak dira.

Mesedegarri deritzot latin-irakaslearentzat ere, Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeak (EGLU III, 8. or.) egin duen *juntagailu* eta *menderagailu* arteko bereizketari. Lazkoz anderearentzat *juntagailuak* dira denak.

Esan bezala gramatika-terminologiari buruz esandakoak eztabaidagai izan daitezke eta gutxitan arbuatuko nuke erabat Lazkoz edota Elhuyar-en aukera. Bestelakoa gertatzen da liburuko hirugarren ataleko zibilizazio-terminologiarekin eta are hiztegi arruntarekin ere. Latineko esku-liburu hau Elhuyar-en itzalean argitaratu arren, honekin batera aurkezturiko *Hiztegi Entziklopedikoa* deritzon erabilitako sarrerekin ere ez datoz bat askotan Lazkoz-ek hautaturiko hitz berezituak, eta are ezta hitz arruntak ere. Ulertzekoa izan liteke *LUR Entziklopedia*-k beste aukera batzuk egitea edo Lazkozek erabiltzen dituen hitzak ez agertzea, baina gaitz egiten zait, elkarte batek, Elhuyar-ek alegia, batipat ikaslegoari edo orokorrean irakaskuntza-munduari zuzenduriko bi liburu aurkeztu, biak batera, eta batean eta bestean terminologiari dagokionean aukera ezberdinak egin ditzan onartzea.

Adibide batzuekin esango dut. Ez zait atsegin, baina ulertzen dut LUR-ek *esklabo* edota *augur* dakarren lekuan, *esklabu* (101. or.) edota *augure* (109. or.) hautatzea Elhuyar-ek bai bere hiztegi entziklopedikorako bai latin-libururako. Baina ez dut ulertzen hiztegian *plebeio* edo *liberto* aukeratu badira, zergatik hautatu behar diren latin-liburuan *plebeiu* (99. or.) eta *libertu* (101. or.), edo hiztegian *gladiadore* (baita LUR-ek ere) baina latin-liburuan *gladiatore* (120. or.). Are gehiago esan dezaket aukera ausartagoak direnean: hiztegian *zentsore* direnak (baita LUR-en ere, s.v. *Flaminio Nepos, Caius*), *zentsugile* dira latin-liburuan (112. or.), eta hauen kargua *zentsura* lehenean eta *zentsugiletza* bigarreanean (113. or.). Kontsulak bietan dira *kontsul* baina kargua batean *kontsulatua* eta bestean *kontsulegoa* (nondik atera da -e- hori?) da. Ikaslearen hautatu eta erabakitze ahalmena garatzen laguntzeko estrategia bat al da hiztegi entziklopedikoan *Koliseoa* deitzen denari, latin-liburuko testuan *Coloseoa* (119. or.) nahiz *Koloseoa* (120. or.) deitzea?

Hiztegi arruntari dagokionean, detaile txar bat: gehiegitan hartu behar izan dut gaztelaniazko jatorrizko testua, euskaraz zer esan nahi duen ulertzeko. Zelan jakingo nuen bestela *etxaldea* (105. or.) dioenean *manzana de casas* (234. or.) itzultzen duela? Edo *familiako jabea* (113. or.) aipatzen duenean *jefe de la familia* (266. or.) ari dela itzultzen? Egia da, bestalde, liburua goitik behera irakurriz gero azkenenean norbera ere trebatu egiten dena *auzitegiak* (111. or.) dakarren lekuan 'auziak' ulertzeko, *antzerkiak* (120. or.) eta *antzezlanak* sinonimo balira bezala irakurtzeko. Azkenerako *taloa* (104. or.) arto-irinez

edo zerez egina den ere berdintsu zaio irakurleari ("una especie de torta de trigo, *panis farreus*" euskaratzeko, cf. *Santillana*, 230), dakarrena barik ekarri beharko lukeena ulertu behar baitu borondate onez.

Errakuntzak

Zenbait lekutan zalantzan geratu naiz, nik ezagutzen ez dudan hitz jator baten aurrean, asmatu-rik hitzen baten aurrean, ala errakuntza soil baten aurrean nagoen jakin gabe. Zer ulertu behar du ondoko perpausa irakurtzen duen latin-ikasleak?

Erromako bizitza politiko guztia galaratzeko aukera zuten.

Ezagutzen ez duen *galaratu* aditza bilatu behar du hiztegian? Ala errakuntza bat da? Eta errakuntza izanez gero, zein izan behar zen aditz zuzena? *galarazteko*? *galarazteko*? Eskerrak gaztelaniazko jatorrizko testua ere badaukaguna:

Pueden paralizar toda la vida política de Roma (*Santillana*, 262. or.)

Beraz *galarazteko*. Txikikerietan sartzen naizela pentsatuko du norbaitek. Txikikeria litzateke errakuntza banakaren bat izango balitz, eman dezagun dozena bat. Gainera euskarazko hitzetan bakarrik gertatuz gero, ikasleak berak ere susma lezake hor zerbait gertatzen dela eta asma lezake zuzena zein litzatekeen: *bidez medio* (47. or.) ikusten duen ikasleak badaki hor zerbait soberan dela, eta hiru-lau aldiz irakurriz gero konturatuko da ezin dela esan zerbait *supinikoa* denik (84. or.), bai ordea *supinokoa*. Baina latinezko

hitzetan ere horrela gertatzen bada? Eta banakaren bat barik eskukadak direnean? Ehun eta hogei orrialde ditu liburuak, gehienak nahikoa zuriak, latinezko nahiz euskarazko hitzez gehiegi bete gabeak alegia, eta berrogeita bat errakuntza zenbatu ditut, liburuak gain-gainetik begiratuz, soilik latinezko hitzetan!

Eman dezagun bigarren ikasgaiko ariketak etxean egin behar dituela ikasleak. Sei perpaus labur ditu euskaratzeko (12. or.), bere bizitzan latinetik euskaratu behar dituen lehen sei perpausak: hiru errakuntza daude sei perpausetan! Latin-apur bat dakienari ez dio buruko min handirik emango *amicitiae* hitzaren ordeztasun *amicitiae*, *aeternae* delakoaren ordeztasun *aeternalae* eta *divitiae* izan beharko lukeenean *divitiae* aurkitzeak; baina lehenengo egunean... Pentsa dezagun bederatzigarren ikasgaira ere iristen dela "ikasle pairalea". Ariketetan bi errakuntza baino ez ditu aurkituko zorionez: *urben* eta *humanun*. Ordurako errakuntzen ugaritasunaz ohartua bada, *urbem* eta *humanum* idatziko du gainetik, baina laugarren deklinabidea ikasi berri duen ikaslearentzat hori bezain erraza da latinez, ondo gogoratzen ez duen deklinabide baten, *-n* batez amaitzen den deklinabide-atzizki bat dagoela pentsatzea.

Dena dela ez dakit ez ote diren larri eta arriskugarriagoak izango taula edota paradigmatiko errakuntza ugariak. *pulcher -chra -chrum* adjetiboaren nominatibo eta bokatio maskulino pluralak *pulchi* dira biak (20. or.), adibidez, latina Lazkoz anderearen liburutik ikasten duenarentzat. *Honor -oris* hitza ikastean badela nominatibo singularrean *honor* aldaera ere ikasi

ohi da, baina liburu honetan forma bakarra da bigarren hau (28. or.), eta *honor* ez da aipatu ere egiten, nominatibo, bokatio eta akusatibo pluralean latin klasikoan inon agertzen ez den *honores* asmatzeko, mundu guztiak *honores* idatzi duen lekuan. Subjuntiboko orainaldia ere nahikoa berezia ikas daiteke liburu honekin (40. or.): *am(a)eo*, *habeo*, *regao*, *cipio* eta *audio* esaten ikas dezaten ikasleek alferrik bilatuko dituzte forma horiek testu klasikoetan eta ez dute jakingo zer diren *amem*, *habeam*, *regam*, *cipiam* edo *audiam* zuzenak. Aditz pasiboetan infektuko enborrari erantzen zaizkion desinentzietan *-muir* ikasten badute lehen pertsona pluralerako (73. or.), gaizki ibiliko dira *-mur* bukaera duten aditzak ezagutzeko. Baina errakuntzarik borobilenetakoa *eo* aditzaren subjuntiboko lehenaldi inperfektua izan daiteke. Ikaslea aditz irregularrak ikasten ari denez, *irem*, *ires*, *iret*, *iremus*, *iretis*, *irent* zuzena baino irregularragoa eskaintzen da hemen: *irem*, *ires*, *irat*, *iramus*, *iratis*, *irint* (85. or.). Errakuntza hauek zuzendu eta balio lezakeela liburuak pentsatzen badu norbaitek, kontuz, adibide gisa baino ez ditut bildu hauek eta.

Tipografia, aurkezpena eta ortografia

Gauzak aurkezteko modu nahasi eta sistematikotasunik gabekoak ere areagotu egiten du hizkuntz formak gaizki ulertzeko arriskua.

Tipografia erabiltzen ez jakitea da alde honetatik testua irakurtzea askotan nekagarri egiten duen elementu bat. Berritua ere lehen ikasgaiak (7. or.) balio digu gauzak zer txarto eginda dauden ikusteko. Denak

nahasita erabiltzen dira lau motatako adierazbideak:

- a) Kakotxik gabeko letra larria: X.
- b) Letra larria inprimategiko kakotx bikoitz artean: "X".
- c) Kakotxik gabeko letra xehea: x.
- d) Letra xehea inprimategiko kakotx bikoitz artean: "x".

Ez dut uste kakotxak horrelakoetan inoiz erabili ohi direnik (grafia dela adierazteko erabili ohi den alboko kakotx bikoitza ez bada: <x>) eta taketak eta barrak erabiliz fonema eta hotsak bereizten hasi nahi ez bada, aski da letrakera etzana edo lodia erabiltzea. Ez dut erabateko ortodoxia eskatzen, baina bai testu argi eta ulergarria.

Moldiztegiko lanetako ohituretatik kanpoko itxura du askotan liburuak, adibidez 58. orrialdearen aurkezpenari erraparaztea baino ez da behar hori ikusteko. Izenburuak azpimarratuta daude, moldiztegiko bidea ezagutuko ez balute bezala. Hiru puntuak gutxi iritzi eta bakoitzean lau, sei, zazpi... jartzen ditu. Esanahiak letrakera zuzenez ematen dira, testu arruntetik lerro-aldaketaz bereizirik:

singuli, bini..... hau da
bana, bina....

Ondo dago ikasgai bakoitzeko hiztegian latinezkoa letrakera etzanez eta euskarazkoa zuzenez ematea, baina testu barruan agertzen denean beste bideren bat bilatu behar da esanahia edo adiera dena bereizteko. Kakotx soilak dira, uste dut, horrelakoetan erabili ohi direnak, eta ez hemen bezalako lerro-aldaketa (lerrotarteko hutsune oparoz, gainera) edo, adibidez, 23. nahiz 31. orrialdeetako parentesiak.

Ikasgaietako hiztegiak aipatu ditudanez, hauetan ere aurkezpenaren sistematikotasun falta da ezaugarri bat. Letra larri edo xehea zein erabili aukeratzea, adibidez, ez da hain zaila, baina hori ere ez du egin liburuaren ardura hartu duenak. Gehienetan hitz-multzo bakoitzeko lehen hitza letra larriz hasten da eta gainerakoak letra xehez; baina ez beti. 30. orrialdean adibidez, horrela jokatu du izenekin, baina ez adjetibo, aditz eta hitz deklinagaitzekin, hauek guztiak hasten baitira letra larriz. Ikasgai batzuetan (14-16. eta 19. ikasgaietan) gainera, ez dakigu zergatik baina ustekabean marratxoa oparitzen digu hitz bakoitzaren aurrean. Hogeigarren ikasgaian (92. or.) ez letra larririk, ez xeherik, ez marratxorik: ahaztu egin zaio hiztegia eskaintzea.

Laburduretan ere ez dago sistematikotasunik, ez hiztegiatan ez testu barruan. Adibide bat:

ablatiboko preposizioa (18. or.)
abla. prep. (22. or.)
ablatibozko preposizioa (30. or.)
ablat. preposizioa (42. or.)
abla. preposizioa (56. or.)
abl. prep. (68. or.)

Baina txikikeriak baino ez dira honainokoak, taula edo paradigmatan gertatzen denaren aldean. Argia izan behar den zerbait baldin badago, ikasleak hizkuntz formak ikasteko erabiliko dituen paradigmek izan behar dute argiak, eta liburu honetan gutxitan ulertzen dira begiratu eta berehala. Bigarren deklinabidea irakasteko, adibidez, desinentzi taula eskaintzen du egileak osorik deklinaturiko hiru izenen aurretik (15. or.). Taula horretan, ohizko nahasketa tipografikoez gain, azalpen historikoak eta sinkronikoak nahasten ditu; -o-

enborra zutela gogorarazi nahi du, baina gauzak nahasi baino ez ditu egiten. Idatzita dagoena behar bezala irakur dezanak, adibidez, *o* batetik, hiru desinentzia (*-us*, *-um*, *-e*) sortu direla susmatuko du, baina kasuen arabera bilakabide ezberdina izan duen jatorri berberekoak direla pentsatuz, enborraren ondoren kasu-marka ezberdinak eranstean direla jakin gabe. Gainerako kasuetan enborra ez dela *-o-* ikasiko du liburuari kasu eginez gero, eta testuinguru honetan multzo hutsaren zeinuak (\emptyset) zer esan nahi duen asmatu ezinik baldin badabil, datibo eta ablatibo singularrak erkatzean txiki-txiki egingo zaizkio bere hipotesi guztiak, bat \emptyset -*o* eta bestea berriz *o*- \emptyset direla ikusirik. Nire txalorik beroenak taula honekin bigarren deklinabidea ikas dezanari.

Adizkirik errazenak ere ezin dira liburu honekin ondo ikasi. Indikatiboko orainaldia adibidez, ez dago ondo ikasterik. Ez dira ohizko aditzak (*amo*, *habeo*, *rego*...) osorik jokatuta eskaintzen eta azalpenik gabe ematen den paradigma, datorren moduan ikasiz gero *amo* barik *amao* ikasiko du ikasleak, eta ez du jakingo *habent* ala *habeunt* idatzi behar den, *rego* ala *regio*, *regis* ala *regs*, *capiunt* ala *capunt*, *audiunt* ala *audint*, *amant* ala *amaunt*.

Behar den moduko azalpen garbirik eman ez eta dena tauletan bildu nahiak, baliogabetu egiten ditu askotan osorik deklinaturik ematen diren hitzen taulak eurak ere. Hirugarren deklinabidea ikastean *pe(d)s* (27. or.), *lex* (*leg-s*) (27. or.), *legio(n)* (28. or.), eta (*-i -m*)-*e -m* [*sic*] (31. or.) aurkitzen duen ikasleak, berak asmatu behar du *pes* dela hitz horren nominatibo singularreko forma bakarra, eta ez duela bere latin-

-testuetan *peds* aldaera aurkituko, parentesi arteko *-d-* azalpen historikoa baino ez baita, eta berdin *lex* edota *legio* hitzekin; 31. orrialdean ordea ez zaio arrazoibide hori baliagarri gertatuko, eta latina beste liburu batekin ikasi duenak azaldu beharko dio *-em* desinentziaren ordeaz *-im* aurkitzen dela *-i-* enborreko zenbait hitzen akusatibo singularrean, hain zuzen ez dagoela akusatiboan *-imem* desinentzia hartzen duen hitzik.

Ikasgai bakoitzeko hiztegiak erabiltzean ere badira mota honetako arazoak. Hirugarren deklinabideko izen asko eta askorekin ikasleak ez du jakingo genitiboa zein den, eta horrenbestez ezta enborra ere, hiztegian eskaintzen den adierazburua gaizki emana baitago, 33. orrialdean, adibidez, hogeita sei izenetatik zortzitan. Hiztegietan ohi bezala *homo*, *-inis* eman beharrean, *homo*, *-is* ematen bada, genitiboa *homis* dela pentsatuko du ikasleak, eta ez da horrela; *mater*, *-tris* eman beharrean, Lazkozek *mater*, *-is* ematen duenez, ikasleak ez daki genitiboa *materis*, *matis* ala *matris* den.

Bere zentzurik zabalenean aipatu dugu orain arte ortografia, tipografiatik hurbil dauden arloetan alegia, baina bere alderik ezagunenean ere badago zer zuzendu. Txarto azalduko da, adibidez, euskal fonetika historikoa, latinezko *sort-* batetik euskaraz *sorte* ateratzen bada (21. or.), eta ez *zorte*, edota berdin *sensu-* batetik *sentsu* (40. or.) eta ez *zentzu*. Baina poz handia emango diogu ikasleari, Eusko Jaurilaritzaren onespenerekin (2. or.) *lehio* nahiz *leiho* idaz daitekeela elkarren ondoko lerroetan (105. or.) erakustean.

Hutsak euskararen erabileran eta eduki hutsak

Ortografiari dagozkionak ez dira hutsik nabarmenenak baino. Behar-beharrezko du liburuak zuzentzailearen lana ikasleen eskuetara iritsi baino lehen, gehiegi baitira huts morfosintaktikoak (mugatu/mugagabeen erabilera adibidez, cf. 15, 19, 35. orr.; edo *delako* komunztadurarik gabe erabilia, cf. 54, 99 orr.) eta ulertzen ez diren sintagma eta esaldiak (*zenbakizko era*, adibidez *zenbaki mota* esateko, cf. 57. or.; *partizipioaren aditzezko baliabidea*, partizipioak aditz bezala joka dezakeela adierazteko, cf. 90. or.). Gehienetan latina dakienak uler dezake zer esan nahiko lukeen, baina dioena irakurriz nahikoa gauza barregarriak ikas daitezke. Begira azalpen bitxienetako bat:

Edozein aditz hiru enborretan banatzen da: orainaldiko enborra, perfektuko enborra, supinoa. Enbor bakoitzaren barruan dauden denborek enbor paretua daukate, baina hiru enborrak ezberdinak dira, edo izan daitezke, beren artean. Horregatik, edozein aditz konjuzgatzeko oinarrizko hiru formak jakin behar ditugu.

Hori da aditz-enborrei dagokien azalpen guztia, horrekin ulertu behar du ikasleak aditz bakoitzak hiru enbor ezberdin erabili ohi dituela, enbor bakoitza denbora jakin batzuetan. Hori al dio? Zer da aditza banatzea? Eta enborraren barruan denborak izatea? Eta enbor paretuak zeintzuk edo nolakoak dira?

Arlo honetan preposizioek ematen digute nahikoa gauza esateko bidea.

Lehenik eta behin, forma-arazo interesgarri bat: nola eman daitezke latinezko preposizioen euskal ordainak? Saio ezberdinak egin ditu Lazkozek, eta denak eskaini dizkio irakurleari orrialde-pare batean (78-79. orr.):

a) Euskaraz bokalez amaituriko hitzekin forma mugagabeen erabiliko litzatekeen kasu-marka adieraziz: *-rentzat*, *-ri buruz*.

b) Euskaraz forma mugatuan erabiliko litzatekeen kasu-marka adieraziz: *-arekin*, *-tik*.

c) Euskaraz forma mugatuan zenbait lekutan zenbait hitzekin erabiliko litzatekeen kasu-marka adieraziz: *-dik*.

d) Adberbioak balira bezala, euskaraz eskatzen duen kasu-marka adierazi gabe: *atzean*.

Gauza horiek ezin dira gehixeago zaindu liburua plazaratu baino lehen eta nolabaiteko sistematikotasuna eskaini irakurleari?

a / ab preposizioarena da edozelan ere kasurik nabarmenena. Lazkozen hiztegietan “-dik (por)” [*sic*] (78. or.) eta “-ko (por)” (79. or.) irakur daiteke. Batetik, ez dakit zelan bururatu zaion egileari latinezko preposizio honen euskal ordaina *-ko* izan daitekeena. Bestetik, ikusi dugunaren arabera ez dut uste *-dik* forma denik kasu-marka adierazteko egokiena. Eta azkenik, gaztelaniazko ordaina eman beharra ikusi du. Zertarako behar du latin-ikasle euskaldunak gaztelaniazko forma? Ez al daki ikasleak *-tik* eta *-ko* noiz erabiltzen diren? Eta ikaslea Ustaritzekoa izan eta gaztelaniarik ez badaki? Eta irakurleak euskara,

gaztelania eta latina hirurak ezagutzen baditu? Orduan laster konturatuko da arazoa ez dela soilik ikaslearena: latinezko *a / ab* itzul daiteke euskaraz *-tik*, itzul daiteke gaztelaniaz *por*, baina latinezko *a / ab* gaztelaniazko *por* preposizioaz itzul daitekeenean (perpau pasiboetan alegia) ezin da euskaraz *-tik* erabili; euskarazko *-tik* kasu-markaz itzul daitekeenean berriz, ezin da gaztelaniaz *por* erabili.

Ez pentsatu *por* hori kasualitatez dagoenik gaztelaniaz. Lazkozen hitzetan “euskaraz pasiborik ez dagoenez” (73. or.) hamaseigarren ikasgai osoko adibideak eta hiztegia daude gaztelaniaz. *Maitatua naiz, maitatua nintzen, maitatua izan nintzen, maitatua izatea...* ez al dira euskara? Zergatik ikasi behar ditu ikasleak horiek gaztelaniaz? Latinezko edozein liburu euskaratzen duen itzultzaileak, gaztelaniaz eman behar ditu pasiboko perpauak, bere itzulpenetan euskara eta gaztelania tartekatuz? Euskara, beraz, ez da gai edozein testu itzultzeko?

Baina ez dira perpau pasiboak bakarrik egileari arazoak sortzen dizkietenak. Aditzek orohar nahikoa burukomin ematen diote, eta askotan ez du gaztelaniara jotzea baino beste irtenbiderik ikusten. Liburuiko lehen orrialdeetatik ohartzen da irakurlea horretaz. Uste dut merezi duela *sum* aditzarentzat ematen dituen ordainak (11. or.) hemen biltzea:

| | |
|--------------------------|------------------------------|
| <i>sum</i> : naiz | <i>fuī</i> : izan nintzen |
| <i>eram</i> : nintzen | <i>fuēram</i> : había sido |
| <i>ero</i> : izango naiz | <i>fuēro</i> : habré sido |
| <i>sim</i> : nadin | <i>fuērim</i> : haya sido |
| <i>essem</i> : nendin | <i>fuīsem</i> : hubiera sido |

Liburuaren egilea nire latin-ikasle balitz, hamarretik bat ondo, bi erdi

ondo eta zazpi txarto. Geroaldi inperfektua da ondo dagoena; orainaldian eta lehenaldi inperfektuan *izaten naiz* eta *izaten nintzen* ere irakatsi behar direla esango nuke; lehenaldi perfektuan *izan naiz* ahaztu zaio; *nadin* eta *nendin* ez dira *izan* aditza, **edin* aditz laguntzailea baino, eta ezin dira beraz aditz nagusirik gabe erabili; gaztelaniaz emandakoei buruz, zer esango dut?

Hurrengo ikasgaietan ere ez du aditzen euskal ordainekin asmatzen:

amabam: maitatu nuen (21. or.)
amavi: maitatu izan dut (38. or.)
amaveram: maitatu izan nuen (39. or.)

Eta zelan esaten da latinez *maitatzen nuen*? Eta *maite nuen*? Eta *maitatu dut*? Eta *maitatu nuen* horrela al da latinez? Indikatiboko lehenaldian, hirutik hiru txarto. Ikus dezagun indikatiboko geroaldia:

amabo: maitatuko dut (23. or.)
amavero: maiteko dut (39. or.)

Hara non aurkitu digun Lazkoz andereak *maitatuko dut* eta *maiteko dut* adizkien arteko ezberdintasuna: latinezko perfektu eta inperfektutasunaren parekoa, aizue!

Hiztegietan ere, zehaztasun falta orokorraz gain, ez dira falta hankasartze larriak. Gauza bat da, adibidez, *ihes egitea* eta beste bat *ihes egin eraztea*, eta latinezko *fugo*, *-as*, *-are* aditzak bigarrena esan nahi du, ez lehena, Lazkozek gura duen moduan (22. or.). Beldurti izan gabe ere izan daiteke zerbaiten beldur, eta bigarrena baino ez du adierazten latinez *timeo* aditzak, liburu honen egileak horrela ulertzen ez badu ere. Ez dut hemen

zerrenda bat egingo, baina sines iezadazue nahikoa arazo izango dituela Lazkozen ariketak Lazkozen hiztegi hauekin egiten saia dadinak. Latinaren ikuspegitik ere aurkitu dut hutsen bat edo beste, banakak baino ez, baina larriak ikasliburu batean aurkituz gero: *nunc* (adberbioa) juntagailua dela (13. or.) ikusiko du ikasleak bere liburuan eta ez du jakingo hemengo *facil*, *-is* (53. or.) ez dela beste edozein liburutan aurkituko duen *facilis*, *-e* bera baino, adierazburua txarto emanda.

Baina alde honetatik, gauza bat du ona ikasliburu honek. Dirudienez ikasleak ez ditu buruz ikasi behar hitzen esanahiak, 78. orrialdean oraindik hiztegian sartzen baita *amo*, eta 86.ean, liburuko azken hiztegian, *sum* aditzak *izan* esan nahi duela gogorarazten baitu oraindik. Gaitzerdi, hurrengo urteko irakasleak beste liburu bat erabiltzen badu, ikasleak buruz ezer jakingo ez duenez, ondo ikasteko aukera izango du.

Gidor Bilbao Telletxea